

BUSTURIALDEKO VII. ENPRESA IDEIA LEHIAKETA

OINARRIAK

Bermeoko eta Gernika-Lumoko Udaletako Gazteria Sailek eta Urremendi Landa Garapen Elkartearen gazteria-zerbitzuak Busturialdeko VII. Enpresa Ideia lehiaketa martxan jarri dute "Lana bilatzea, Lana da" eskualdeko gazteei laguntzeko programaren barruan.

1.- HELBURUAK

- Busturialdean ekintzailatza-kultura zabaltzea.
- Enplegua eta aberastasuna sortzea Busturialdeko eskualdean.
- Eskualdeko ekonomia bultzatzea.
- Enpresa-ideiarik onenak saritzea.

2.- NORI ZUZENDUTA DAGO?

Lehiaketa 18 eta 35 urte bitarteko gazte guztiei zuzenduta dago, beti ere haien enpresa-ideiak (enpresa- edo produkzio-zentroa) Busturialdeko eskualdean kokatzen badira. Enpresa bat sortzeko ideiak edo dagoeneko 2020an sortu diren enpresak izan daitezke, baina Busturialdean egon behar dira, eta horien sustatzaileek adierazitako adin-betekizuna bete behar dute.

3.- SARIAK

1. saria: 3.000 €* + Arratzuko Elkartegiko langune bat urte batez doan uztea**+ urte beteko aholkularitza zerbitzua doan.

2. saria: 2.000 €* + Arratzuko Elkartegiko langune bat urte batez doan uztea** + sei hilabeteko aholkularitza zerbitzua doan..

Lehen sektoreari lotutako ideiarik onena: 1.000 €* (Aurreko sarietako baten bat jaso ez badu).

COVID-19aren eragina arintzera bideratutako enpresa-ideiarik onena: 1.000 €* (Aurreko sarietako baten bat jaso ez badu).

Epaimahaiaren iritziz ideiek ez badute gutxieneko maila, sariak eman gabe geratu ahalko dira.

Saritutako ideia guztiak Busturialdeko Gazteria Zerbitzuen esku geratuko dira, zeinek enpresa-ideia abian jartzeko ahalmena izango duten, ideia aurkeztu duenarekin batera zein bera gabe.

* Oharra: Sariaren %70a sari banaketaren egunean jasoko da. Gainerako %30a, aldiz, sarituek beren enpresa-proiektuak/ideiak garatu eta martxan jartzerakoan jasoko da. Hori egiaztatzeko dagokiezana ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

** Oharra: Arratzuko Elkartegian dauden languneen erabilgarritasun-aukeren eta espazioaren araberakoa.

4.- PROIEKTUAK BALORATZEKO KONTUAN HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK ETA BALORATZEKO MODUA

Epaimahaiak jarraian adierazitako irizpide, meritu eta elementuak baloratuko ditu aurkeztutako proiektuetan:

- Izaera berritzailea: balio erantsia edukitzea edota originala izatea.
- Enplegua sortzeko aukera eta horien kalitatea.
- Lantalde sustatzailearen gaitasuna (profil egokiak) proiektua arrakastaz garatu eta martxan jartzeko.
- Proiektua Busturialdean gauzatzeko aukera edo eskualdera egokitzekoa.
- Proiektuaren garapen- eta deskribapen-maila.
- Proiektuaren jasagarritasuna (ingurumenari zein ekonomiari dagokienez).
- Gizarte-eragina.

Bozketaren-arauketa:

Lehenengoa.- Epaimahaikideak ezagutzera emango dira proiektuak aurkezteko epea amaitu eta 10 eguneko epean, Urremendiko iragarki-taulan, Bermeoko eta Gernika-Lumoko Udaletako iragarki tauletan eta www.gaztedibusturialdea.eus webgunean. Erakunde antolatzaileek erabakiko dute epaimahaia hiru, bost ala zazpi kidek osatuko duten.

Bigarrena.- Lehiaketa eta sariak (guztiak edo batzuk) hutsik geratu ahalko d(ir)a epaimahaiak egokitzat jotzen badu, edo uste badu aurkeztutako ideiek ez dutela gutxieneko maila.

Hirugarrena.- Epaimahaiak aurkezten diren proiektu guztiak baloratu beharko ditu. Bozketaren hasieran, epaimahaikideek gehiengoz erabaki beharko dute proiektuak osorik baloratuko dituzten (zazpi irizpideak kontuan hartuta) ala balorazio-atal bakoitzari portzentaje bat esleituko dioten. Era berean, eta gehiengoz beste behin, erabaki ahalko dute beste balorazio-eredu bat erabiltzea, betiere lehen adierazitako irizpideei jarraikiz.

Laugarrena.- Epaimahaiaren botoen aurka ezingo da ez apelaziorik ez errekurtsorik aurkeztu, haien eginkizuna, neurri handi batean, baloraziozkoa baita.

5.- EPEA

Proiektuak aurkezteko azken eguna: **2020ko azaroaren 20a (14:00ak arte).**

6.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA*

- Izena-emateko fitxa, beteta.
***Hautazkoa: Proiektuaren azalpen- eta garapen-memoria aurkeztu ahal izango da, ebaluatuko diren irizpideen arabera.*
- Beste gutun-azal batean (itxita), ideia aurkezten duenaren edo dutenen datuak:
 - ✓ NANaren fotokopia(k).
 - ✓ Curriculum(a)(k).
 - ✓ Aurkezten den ideia-izenburua.

*Agiri guztiak paperean aurkeztu beharko dira.

7.- INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO ETA ESKAERAK JASO ETA AURKEZTEKO TOKIAK

- **Bermeoko Gazteentzako Informazio Zerbitzua (GIZ)**

Gizarte eta Kultura Etxea - Irakaskintza 14-16 - 48370 BERMEO
giz@bermeo.eus – Tel.: 94 617 91 58 - www.giz.bermeo.org

- **Busturialdeko Herri Txikien Gazteria Zerbitzua – URREMENDI LGE**
Domingo Alegria Enparantza z.g. (Gernikako plaza, bulegoak) - 48330 GERNIKA-LUMO
gazteria@urremendi.org - Tel.: 94 625 76 09
- **Gernika-Lumoko Gazteentzako Informazio Bulegoa**
Foruen Plaza z.g. - 48300 GERNIKA-LUMO
gazteria@gernika-lumo.net - Tel.: 94 627 02 15

8.- SARI-BANAKETA

Sariak 2020ko **abenduan** banatuko dira (data zehazteke).

Jendeari ezagutaraziko zaio, eta parte-hartzaileei sari-banaketaren ordua eta tokia jakinaraziko zaizkie, baita eguna ere. Izan daitezkeen aldaketa guztiak www.gaztedibusturialdea.eus webgunean eta Gaztedi Busturialdearen eta erakunde antolatzaileen gizarte sareetan argitaratuko dira.

9.- JABETZA INTELEKTUALA

Busturialdeko Gazteria Zerbitzuek (Urremendi LGE eta Bermeoko eta Gernika-Lumoko Udalak) saritutako proiektuen ideia guztiak eta jabetza intelektual bereganatuko dituzte. Horrenbestez, askatasun osoa edukiko dute enpresa-idea martxan jartzeko, zuzenean edo hirugarrenen bitartez eta ideia aurkeztu duen pertsonarekin batera edo hura barik, betiere sortzaileak (edo sortzaileek) ez badu ideia garatzeko asmorik.

10.- DATU PERTSONALAK

Parte-hartzaileek parte hartzeko eskaerarekin batera sinatu beharko dute berariaz onartzen dutela beren datuak Urremendi Landa Garapen Elkartearen eta Bermeoko eta Gernika-Lumoko udalen datu-baseetan sartu, erabili eta gordetzea; bai eta Urremendi Landa Garapen Elkartearen bazkide diren udalerriei eta Bizkaiko Foru Ogasunari lagatzea ere.

Bestalde, lehiaketan parte hartzean baimena emango dute haien izena eta bi abizenak aurkeztutako proiektuari lotuta zabaltzeko: prentsan, hedabideetan eta iragarki-tauletan. Halaber, berariaz baimenduko dute sari-banaketan ateratako argazkiak –zeinetan gertatu liteke parte-hartzaileak agertzea– gorde, erabili eta zabaltzea: prentsan, hedabideetan eta iragarkitauletan nahiz lehiaketaren hurrengo edizioetako iragarkietan.

Busturialdean, 2020ko urriaren 1a